

2018ko azaroa

Urriaren 24an Lea-Artibai Berrikuntza Gunean Ekonomia Zirkularrari buruzko jardunaldia ospatu zen Azaro Fundazioaren eskutik, Innobasque eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean. Guztira 30 pertsona inguru bildu ziren bertan, asko inguruko enpresetako ordezkariak.

Jardunaldia



en helburua Ekonomia Zirkularraren kontzeptua enpresetara hurbiltzea izan zen, ideia bat izateari utzi eta enpresen egunerokotasunean txertatzeko dauden bideak azalduz.

Hori lortzeko, Azaro Fundazioko Zuzendaria den Ainhoa Arrizubietak Bizkaiko Foru Aldundiaren *Bizkaia Oreakan* programaren baitan, ekonomia zirkularraren inguruan eskaintzen diren azterketak eman zituzten ezagutzera, eta bertaratuei parte hartzeko gonbidapena luzatu zitzaion. Bi metodologia ezberdin dira, bata ekoizpen prozesuan oso enfokaturia, bestea aldiz, negozio eredua bere osotasunean aztertzean datza, hau zirkularragoa nola izan hausnartzeko. BFAk finantzatzeaz gain, interesa duen edozein enpresarentzat izan daitezke egokiak eta onuragarriak, Ainhoak azpimarratu zuenez.

Ondoren, Ihebeko Ignacio Quintanak Eusko Jaurlaritzatik RIS3 estrategiaren baitan Ekonomia Zirkularraren alde egiten duten apustuaren zergatia eman zuen ezagutzera. Izan ere, euskal industriaren kostuen %61 materialekin zerikusia duten kostuak dira, beraz, garrantzitsua da zentzu honetan gastuak murriztea.

Alderdi teknikoaren ostean, Elkober, Rebattery eta Plastic Repair System enpresek kasu praktikoak azaldu zituzten. Azken enpresa honetan plastikoa gutxitzeko metodo bat garatu dute, termosoldadura prozesu baten bitartez. Itzulgarriak diren produktuen erabilgarritasuna 100%ean mantenduz, adibidez enpresa industrialetako plastikozko kontainerrak. Produktu berria erosi beharrean konpontzeak gastu ekonomikoaren zein karbono aztarnaren murrizketa garrantzitsua dakarrelarik.

